

eman ta zabal zazu



UPV EHU

ZIENTZIA
ETA TEKNOLOGIA
FAKULTATEA

FACULTAD
DE CIENCIA
Y TECNOLOGÍA

50 URTE
AÑOS
1968 - 2018

Biba Zientzia!
Ciencia Viva

Laburpena
Resumen

KUDEAKETA ETA PLANGINTZA TXOSTENA 2019/2020 INFORME Y PLAN DE GESTIÓN

Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Facultad de Ciencia y Tecnología

www.ehu.es/es/web/zientzia-teknologia-fakultatea



AURKIBIDEA

KALITATE POLITIKA BERRIKUSTEA.....	2
PROZESUEN MAPA.....	4
TITULU OFICIALAK	4
PLAN ESTRATEGIKOA	5
PROZESUEN BERRIKUSKETA.....	7
EMAITZA NAGUSIAK.....	9
GRADU TITULAZIOEN ADIERAZLEAK	9
MASTER TITULAZIOEN ADIERAZLEAK	12
SISTEMAKO BESTE ADIERAZLEAK.....	13
EKINTZAK	13
EGINDAKO EKINTZA BATZUK.....	13
2020/21AN EGITEKO PROPOSATUTAKO EKINTZA BATZUK	13



KALITATE POLITIKA BERRIKUSTEA

Zientzia eta Teknologia Fakultateko dekanotza-taldeak bere egin du kalitate eta bikaintasunezko kudeaketa sustatzeko konpromisoa, eta hala jasotzen da Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemari (KBBS). Konpromiso horrek urteetan zehar egin diren jarduerak gidatu ditu.

Honako hauek dira **prozesuaren mugarri nabariak**:

- Gogoeta estrategikoa, 2005-2010 eperako ikastegiaren lehenengo plan estrategikoa eman zuena (2005. urtean).
- Ikastegiko prozesuen mapa ezartzea (2005. urtea).
- Kudeaketarako bikaintasunari emandako zilarrezko Q-a lortzea (2006. urtea).
- Ikastegiko kalitate batzordea eratzea, KBBS-ren bermatzaile (2007. urtea).
- Ikastegiko prozesuen maparen lehenengo berrikusketa (2009. urtea).
- AUDIT programak KBBS akreditatzea (2010. urtea).
- Gogoeta estrategikoa, 2011-2015 eperako ikastegiaren bigarren plan estrategikoa eman zuena (2011. urtean).
- Ikastegiko prozesuen maparen bigarren berrikusketa eta UNIKUDE sistemara egokitzea (2013. urtea).
- AUDIT programak KBBS-ren ezarpena akreditatu eta zilarrezko A lortzea, MGA ereduaren arabera (2016. urtea).
- Administrazio akademikoaren zerbitzuko zerbitzuen karta (2017. urtea).
- Gogoeta estrategikoa, 2017-2020 eperako ikastegiaren hirugarren plan estrategikoa eman zuena (2017. urtean).

Oinarri horren gainean kudeatzen dira ikastegiko bederatzi graduak eta gradu bikoitza, **KBBS-ren organo** hauek bidelagun izanik:

1. Fakultateko batzarra: Ikastegiaren kalitaterako politika eta helburuak onesteko ardura du, 2005-10, 2011-15 eta 2017-20 plan estrategikoetan eta azken ikasturtean burututako ekintza eta jardueren berri jasotzen duten urteroko kudeaketa-planetan adierazita. Fakultateko Batzarrari dagokio ikastegiko kalitate-batzordearen eta graduiko ikasketa-batzordeen eraketa, osaera eta funtzioak onartzea. Era berean, Fakultateko Batzarrari dagokio titulazioetarako proposatzen diren hobekuntza ekintzak onartzea, graduiko tituluen kalitatea bermatzeko sistemaren esparruan, besteak beste, graduetako jarraipen autotxostenak oinarri hartuta, graduiko ikasketen batzordeek egin eta kalitate batzordeak babestu eta aurkeztuta.

2. Dekanoa: Fakultatearen ordezkari akademiko gorena da, dekanotza-taldearen eta, bereziki, kalitate eta berrikuntzarako dekanordearen laguntzaz, fakultateko batzarrak onetsitako erabakiak betetzeko konpromisoa duena, hauen artean KBBS diseinatu, ezarri, berrikusi eta hobetzeko ardurak sartzen direlarik. Bere egiten ditu KBBS-ren dokumentuak, fakultateko batzarrari aurkezten dizkio ikastegiaren kalitate politika eta helburuak eta proposamena egiten dio ikastegiko kalitate-batzordearen eta graduiko ikasketa-batzordeen eraketa, osaera eta eginkizunak onar ditzan.

3. Kalitate eta berrikuntzarako dekanordea: KBBS-k esleitutako arduraz aparte eta bestelako eginkizunen artean, ikastegiko prozesuen mapako prozesuak ezarri, mantendu eta berrikusi daitezela bermatu behar du, fakultatearen KBBS garatuta. Horrez gain, ikastegiak burutzen dituen berrikuntza programak koordinatzen eta sustatzen ditu, baita plan estrategikoak, kudeaketa-txostenak eta titulazioen jarraipen txostenak egin ere.



4. Ikastegiko kalitate batzordea (IKB): Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren plangintza eta jarraipen zereginetan dihardu aholkulari, eta, gainera, barne komunikaziorako tresna da kalitate-sistema honen politikaren, helburuaren, planaren, programaren, erantzukizunen eta lorpenen inguruan. KBBS-ren bermatzaile izatea du eginkizun nagusia. Honako hauek dira osakideak:

- Dekanoa, batzordeburu gisa.
- Kalitate eta berrikuntzaren arloko ardura duen dekanordea, idazkari gisa aritzen dena.
- Irakasle-ikertzaileen bi ordezkari, kalitatearen kudeaketan akreditatuak.
- Ikastegian irakasten diren titulazioetako koordinatzaileak.
- Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.
- Graduako ikasleen ordezkari bat.
- Graduondoko ikasleen ordezkari bat.

5. Graduako ikasketen batzordeak (GIB): Ikastegiko graduako ikasketen curriculumen garapena, jarraipena, berrikusketa eta hobekuntza burutzeaz arduratzen dira. Fakultateko Batzarrak onartu zituen eginkizunak 2009ko maiatzaren 4an. Honako hauek dira osakideak gradu bakoitzeko batzordean:


- Titulazioaren koordinatzailea, batzordeburu gisa aritzen dena.
- 1., 2., 3. eta 4. mailetakoa lau irakasle koordinatzaile.
- Halakorik egonez gero, beste koordinatzaile batzuk, eginkizunak graduako eremuan balituzte: gradu amaierako lana, kanpoko praktikak, laborategiko praktikak, landa praktikak, tutoretza plana eta beste.
- Ikasleen bi ordezkari, ikasleen kontseiluak proposatuta.

6. Titulazioaren koordinatzaileak: Irakasleak dira, dekanotza-taldeak izendatuta. Bakoitzak bere titulazioaren koordinazio horizontal eta bertikala du eginkizun nagusi, dagokion GIB-ren laguntzaz. Ikastegiko kalitate batzordeko kide ere badira. Aldi berean, informazioa bideratzen dute batzorde bi horien artean.

7. Mailako koordinatzaileak: Maila berean aritzen diren irakasleek beren artean aukeratutako irakasleak dira, izendapena fakultateko batzarrak onetsi behar duelarik. Mailako irakaskuntza-jarduerak behar bezala garatzen direla bermatzea du eginkizun, jarraipena egiteko behar den informazioa batuz.

8. Bestelako koordinatzaileak: Graduaren premien arabera, bestelako koordinatzaile batzuk egon daitezke GIB-en baitan, esaterako, landa praktikak, laborategiko praktikak, kanpoko praktikak, gradu amaierako lana edo beste arduraren bat dutenak. Hauen izendapenak eta eginkizunak mailako koordinatzaileen antzekoak dira. Hauen jardute-eremua ikasleek egindako jarduerak mugatzen dituzte, zein bere koordinazio-eremuan.

PROZESUEN MAPA



TITULU OFIZIALAK

GRADUAK

Fisikako eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitza
 Biologiako Gradua
 Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua
 Bioteknologiako Gradua
 Fisikako Gradua
 Geologiako Gradua
 Ingeniaritza Elektronikoko Gradua
 Ingeniaritza Kimikoko Gradua
 Kimikako Gradua
 Matematikako Gradua

GRADUONDOKOAK

Itsas Baliabide Biologikoak Erasmus Mundus Masterra
 Itsas Ingurumena eta Baliabideak Erasmus Mundus Masterra
 Mikrouhinetako Elektronika eta Optika Berritzaileak Erasmus Mundus Masterra
 Biodibertsitate, Funtzionamendu eta Ekosistemen Gestioa Unibertsitate Masterra
 Biologia Molekularra eta Biomedikuntza Unibertsitate Arteko Masterra
 Ingeniaritza Kimikoa Unibertsitate Arteko Masterra
 Ingurugiroaren Agrobiologia Unibertsitate Arteko Masterra
 Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia Unibertsitate Masterra
 Kimika Sintetiko eta Industrial Unibertsitate Arteko Masterra
 Material Berriak Unibertsitate Arteko Masterra
 Modelizazioa eta Ikerkuntza Matematikoa eta Konputazioa Unibertsitate Arteko Masterra
 Paisaiaren Kudeaketa, Ondarea, Lurraldea eta Hiria Unibertsitate Masterra
 Zientzia eta Teknologia Kuantikoak Unibertsitate Masterra

PLAN ESTRATEGIKOA

1. Ardatza. Irakaskuntza

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE.1.1. Ikasleen formakuntza sendotzea eta emaitza akademikoak hobetzea	2017/18	%53
	2018/19	%73
	2019/20	%77
HE.1.2. Ikasleen nazioartekotzea sustatzea	2017/18	%65
	2018/19	%92.5
	2019/20	%96.25
HE.1.3. Irakasleen arteko koordinazioa hobetzea	2017/18	%60
	2018/19	%80
	2019/20	%90
HE.1.4. Graduondoko formakuntza eskaintza laguntzea eta hedatzea	2017/18	%75
	2018/19	%92.5
	2019/20	%95

2. Ardatza. Ikerketa

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE.2.1. Ikerketa jardueri buruzko ezagutzak hobetzea	2017/18	%0
	2018/19	%0
	2019/20	%30
HE.2.2. Ikerketa-taldeen arteko harremana laguntzea	2017/18	%50
	2018/19	%75
	2019/20	%75
HE.2.3. Ikerketa-taldeak laguntzea	2017/18	%76.67
	2018/19	%86.67
	2019/20	%90


3. Ardatza. Pertsonak

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE.3.1. Ikastegiko langile eta ikasleei egindako harrera eta aintzatespena hobetzea	2017/18	%33.33
	2018/19	%91.67
	2019/20	%100
HE.3.2. AZP/IIParen parte-hartzea sustatzea Fakultateko ekintzetan eta proiektuetan	2017/18	%87.5
	2018/19	%100
	2019/20	%100
HE.3.3. AZP/IIParen garapen profesionala hobetzeko tresna berrien inguruko formakuntza sustatzea	2017/18	%35
	2018/19	%65
	2019/20	%90
HE.3.4. Ikasleei eskainitako zerbitzuak hobetzea	2017/18	%52
	2018/19	%70
	2019/20	%89

4. Areatza. Kudeaketa, Berrikuntza eta Erantzukizun Soziala

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE. 4.1. Hezkuntza-berrikuntza bilatzen duten proiektuak babestea IIParen parte-hartzea sustatuz	2017/18	%0
	2018/19	%37.5
	2019/20	%37.5
HE.4.2. Benchmarkinga sustatzea beste ikastegi batzuekin	2017/18	%50
	2018/19	%70
	2019/20	%75
HE.4.3. Aurrerapenak egitea kudeaketa aurreratuko sistema inplementatzeko prozesuan	2017/18	%21.67
	2018/19	%40
	2019/20	%60
HE.4.4. Erantzukizun Sozialen ekintzak sustatzea	2017/18	%38.33
	2018/19	%48.33
	2019/20	%53.33
HE.4.5. Dibulgazio zientifikoa sustatzea gizartean	2017/18	%57.5
	2018/19	%67.5
	2019/20	%75

Plan Estrategikoaren betetze-maila



ONDORIOAK

1. ARDATZA- Lan taldea sortu zen Ikastegiko graduren batean prestakuntza dualeko ibilbidea martxan jar zitekeen aztertzeko, eta taldeak memoria bat idatzi zuen Kimikako Graduan horrelako ibilbide bat gehitzeko. Kalitate Batzordeak, Ikastegiko Batzarrak eta Graduak Batzordeak proposamena onartu ondoren, UNIBASQen aurkeztu zen, zeinak eskaera martxan jartzearen aurkako txostena helarazi baitzuen, eta ondorioz, ezin izan da ezarri.

Bestalde, Fakultateko irakaskuntza eskaintza hobetzeko lan egiten jarraitu da. Alde horretatik, nazioarteko titulazioen kopuruak gora egin du, Erasmus Munduseko hiru master barne. Gainera, graduondoko irakaskuntza-eskaintza hedatzearen alde lan egin da; Ikastegiko masterren liburuxka bat editatu zen, Master Egunean banatu zena.

Azkenik, aurrerapauso handiak eman dira irakaskuntza koordinazioan. Izan ere, COVID-19aren pandemiaren ondorioz, koordinazio mekanismoak martxan jarri dira, eta irakasle, departamentuetako zuzendari, Ikasketa Batzorde eta Batzorde Akademikoaren lan gogorrari esker, egoerari arrakastaz egin diogu aurre..



2. ARDATZA- Ikerketaren ardatzari dagokionez, Fakultateko ikerketa baliabideen gida argitaratzeko oinarri gisa balioko duen fitxa bat diseinatu da. Horrela, OE2.1.eko helburu estrategikoaren aldeko pausoak ematen dira, aurreko urteetan ez bezala.

Bestalde, osasun larrialdi egoeraren ondorioz, ezin izan genuen VII. Ikerkuntza Jardunaldia ospatu 2020ko martxoan. 2020ko irailerako berrantolatatu da; izan ere, jardunaldi horiek oso aproposak baitira ikerketa taldeak elkarrekin egoteko eta beren ikerketa proiektuen berri emateko.

3. ARDATZA- Pertsonen ardatzari dagokionez, bi helburu estrategiko (HE3.1. eta HE 3.2) bete dira jada, eta beste biak bidean daude, % 89 eta % 90arekin hurrenez hurren. Zehazki, 2019-20 ikasturtean zehar, AZP eta IIPentzako harrera gida idazten amaitu zen, irakaskuntza eta kudeaketari aplikatutako IKT tailerrak antolatu dira, eta ikasleen eskakizunak ezagutu dira taldeko ordezkariekin eta Ikasle Batzarrarekin egin diren bileren bitartez. Gainera, ikasleriari lotutako hobekuntzetarako bideratutako aurrekontuaren ehunekoa berreskuratu da. Dena den, Tutoretza Planeko proiektuak ez du espero zen jarraipena izan; COVID-19aren pandemia arrazoietako bat izan daiteke, ezin izan baitira egin programatutako bilera presentzial guztiak

4. ARDATZA- 4. Ardatza da gutxien garatu dena Plan Estrategikoa martxan jarri zenetik. Horren arrazoa da COVID-19aren ondorioz, 2020ko martxotik uztaile bitarte martxan jarri behar ziren ekintzek lehentasuna izan dutela. Besteak beste, ezin izan da Etikako Gidaliburua idatzi, hasi gabe baztertu behar izan dena; bestalde, Zabalkunde Plana gelditu behar izan den arren, 2020-21ean jarraituko da horren lanketarekin.

Nabarmenezkoa da hezkuntza berrikuntzarako jardueretan parte hartutako kopuru altua, aurreko urteetako bikoitza izan baita. Datu hori bereziki aipagarria da, kontuan izan behar baita Berrikuntzaren, Gizarte konpromisoaren eta Kulturgintzaren Arloko Errektoreordetzak antolatutako EHUedonondik formakuntza-programako jardueretan ez dela parte-hartzea kontatu

PROZESUEN BERRIKUSKETA

1. PROZESUA

Lehenengo prozesua berriz diseinatu dugu Fakultateko master atxikien kudeaketa barne hartzeko, AUDITeko jarraibideei kasu eginez. Horrela, 1. prozesua-Planifikazioa atalaren barne, 1.3 azpiprozesua sortu da, Gradu eta Graduondoko titulazioen ohiko prozedurak barne hartzen dituen. Gainera, kudeaketa-planifikazioa bi prozeduratan banandu da planifikazio estrategiko desberdinak dituztelako; batek zenbait urtetarako planifikazio estrategikoa dauka; besteak, aldiz, urtekoa.

Prozesu horretarako titulazioetako enplegarritasun tasa zehaztu da adierazle gisa. 2019-20 ikasturtean, adierazle horrek oso emaitza onak erakusten ditu orokorrean datuak eskuragarri dauden gradu zein master ofizialetan.

2. PROZESUA

2019-20 ikasturte amaiera COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondorioz, erabat bestelakoa izan zen. Hala ere, prozesu honetako adierazle nagusien bilakaera guztiz positiboa izan da. Gradu guztietan, Geologian izan ezik, plazak bete dira, eta egokitzapen tasa aurreko ikasturtekoen antzekoa izan da. Errendimendu-tasa igo da gradu guztietan, Fisika eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitzean izan ezik, zeinetan 2018/19 ikasturtearekin alderatuta, zertxobait jaitsi baita (% 93,94 eta % 94,27). Arrakasta-tasa oso altua izan da, titulazio guztietan % 80tik gorakoa baita. Bestalde, gradu batzuetako ikasketen uzte tasa nahiko kezkarria da zenbait Gradutan. Esaterako, hiru Gradutan (Matematika, Ingeniaritza Elektronikoa eta Geologia), ikasketen uzte tasa % 35etik gorakoa da 2015/16 sarrerako multzoan. Dena den, datozen ikasturteetan tasa hobetzea espero da, ikasleen profila eta lehenengo ikasturteko uzte tasa kontuan hartuz gero, balio onargarrietan mantentzen baita. Nabarmen jaisten da Geologiako uzte tasa, eta espero dugu hura izatea hurrengo ikasturteetako joera. Bestalde, egokia litzateke titulazio batzuetako graduazio-adierazleak hobetzea. Esaterako, graduazio-tasa % 12,5ekoa da Ingeniaritza Elektronikokoan eta % 21,57koa Geologian 2015/16



sarrerako multzoan. Gainera, efizientzia tasa aurreko urtekoen antzekoa den arren, lau gradutan % 70 eta % 80 bitartean dago tasa; 2018/19an, aldiz, bi gradu zeuden ehuneko horien artean. Azkenik, 2016ko promozioan graduatutako oniritzia okertu da titulazio guztietan, Fisikakoan (7.04 izatetik 7.16ra igaro da) eta Bioteknologiakoan salbu, zeinetan 6,75ean mantentzen baita. Mugikortasun programetan parte hartu duen ikasle kopurua aurreko urtekoen antzekoa da, nahiz eta nabarmendu behar den Biologia eta Matematikako ikasle gehiagok parte hartu dutela Erasmus programan. Gainera, 2019/20 ikasturtean graduatutako 4 ikasletik batek hartu du parte mugikortasun akademikoren batean.

Ikasleriak gero eta interes handiagoa du praktketan. 2020ko martxotik ikasturte amaiera arte osasun egoera berezia bizi izan dugun arren, 244 ikaslek hartu dute parte curriculumeko eta curriculumetik kanpoko praktketan; eta ikasleak egondako enpresen iritzia oso ona da (4,8/5).

3. PROZESUA

2019/20 ikasturtean, prozesu hau gehitu zaio Fakultateko kudeaketa sistemari Fakultateko masterren kudeaketa integratzeko. Ikastegiko kudeaketa estandarren arabera egin da, master atxikiaren lekualdaketa sortutako arazoak konponduz Master eta Doktoretza Eskolatik.

Masterren jarraipenerako erabilitako adierazle nagusiei dagokionez, ikus daiteke okupazio tasa igo dela gehienetan, masterretako batean okupazio tasa nahiko baxua izan den arren (% 33,33 Paisaiaren Kudeaketa. Ondarea, Lurralde eta Hiria Masterrean, hain zuzen). Errendimendu eta graduazio tasak oso onak dira. Izan ere, errendimendu tasa soilik 3 masterretan baitago % 90etik behera, eta berdin gertatzen da 2 masterretako graduazio tasekin.

4. PROZESUA

ZTF-FCT ikerketarako erreferentzia zentroa da Euskadin. Ikastegiko ikerketa taldeen egoera ekonomikoa desegokia eta belaunaldi-aldaketa gertatzen ari den arren, IIG bakoitzeko ISI argitalpenak mantentzen dira. Gainera, IIGko proiektu kopurua mantentzen da. Bestalde, defendatutako doktorego tesien kopura beherantz doa, eta egokia litzateke joera hori aldatzea. Izan ere, 2019/20 ikasturtean 70 doktorego tesi defendatu baitziren, azken 6 ikasturteetako zenbakirik txikiena, eta denboraldi berean hautemandako maximoa baino % 30 gutxiago da.

5. PROZESUA

COVID-19aren pandemiak eragindako egoerari aurre egiteko irakasleek izan duten jokabidea bikaina izan da. Horren adibide da, esaterako, egoera berriari heltzeko modua; izan ere, 2020ko martxotik aurrera irakaskuntza presentizala on-line bihurtzea ahalbidetu baitzuten.

2019/20 ikasturtean zehar, orokorrean, Graduko titulazioen irakasleen plantilla egonkorragoa bihurtu da, oro har. Lanaldi osoko behin betiko irakasleen kopuruak ere gora egin du, baita lanaldi osoko IIGko doktoreen kopuruak ere. Bestalde, AZPko langileen kopurua ez da nahikoa, eta 2008an Ikastegiak onartutako erreferentzia-plantilla baino txikiagoa da.

6. PROZESUA

Prozesu hau berriz diseinatu da, eta bi prozedura desberdin definitu dira; bata, ekonomiaren kudeaketaz arduratzen dena; bestea, kudeaketa administratiboaz. Fakultateari dagokion aurrekontuaren kudeaketa ekonomikoa aproposa egiten da, eta ehuneko altu bat irakaskuntza ekintzetarako bideratu da.

Bestalde, administrazioari dagokionez, Fakultateko Zerbitzuek egiten duten kudeaketa hobetu da (adib., ikasleen kudeaketari lotutako galdetegiak on-line egiten dira, edo dokumentazioaren digitalizazioa ere gertatu da), eta erabiltzaileen iritzian nabaritu da aldaketa. Gainera, Fakultateko Zerbitzuek egoki jokatu dute osasun-krisialdi egoeran.

7. PROZESUA

Azpiegitarari dagokionez, eta aurreko urteetan bezala, horien hobekuntzara bideratutako neurriak hartu dira; eta COVID-19ak eragindako konfinamendua kontuan hartuta, 2019/20 ikasturtean egindakoaren balorazioa positiboa da. Ikasturte honetan zehar aurrera eramandako neurrien artean, nabarmentzekoa da ikasgeletan bideokonferentziak egiteko gailuak jarri direla, klaseak streaming bidez ematea ahalbidetu dutenak; beraz, esan daiteke Fakultatea ongi egokitu dela osasun egoerara. Bestalde, aurrekusten dugu airearen kalitatea hobetuko duen hodian garbiketarekin jarraituko dugula hurrengo ikasturtean zehar.

8. PROZESUA

Euskararen presentzia garrantzitsua da Zentroko irakaskuntza jardueretan, eta bereziki GRALen eskaintzan edota euskarazko kultur edo dibulgazioko jardueretan. Gainera, hizkuntza ez ofizialetako irakaskuntza eskaintza ere handituz doa.

9. PROZESUA

Covid-19aren pandemiak eragina izan du aztertutako adierazle askotako balioetan, eta ondorioz, ekintza batzuk lehenetsi behar izan dira, beste batzuk alde batera utziz. Nabarmentzen dugu 2019-20 ikasturtean zehar Ikastegiko web-orri ofizialeko edukien berrikuspen lana. Horri esker, Fakultateko web-orriaren eskaintako informazioa antolatu da, bisitariarentzat eskuragarriago eta intuitiboagoa izan dadin. Gainera, web-orriko edukia bi hizkuntza ofizialetan agertzeko moldatu da, eta web-orriko edukia hautatu da ingelesez ere agertzeko. Eskura dagoen informazio publikoaren hobekuntza horrekin amaitzeko, bisitariarentzat erakargarriagoa izango den formatu berri bat diseinatuko da, zeina 2020-21 ikasturterako prest egotea aurreikusten baita.

10. PROZESUA

Docentiaz programaren bidez boluntarioki ebaluatu den irakasleen kopurua % 50 inguru izan da; 6 ikasturtetan zehar, 2014/15ean % 18,69 izatetik, % 48,81 izatera pasa da 2019/20ean. Aurrerapen nabarmena da, UPV/EHUko batz bestekora hurbiltzea ahalbidetu eta Fakultateko irakasleen jardun egokiaren berri ematen diguna.


Bestalde, interes taldeei sistematikoki egiten zaie galdetegia beren iritziaren berri izateko, eta foku-taldeetan elkartu gara beraiekin; lortutako emaitzak dagozkien txostenetan aurki daitezke. Informe horiek, adierazle gakoekin batera, hobekuntzak egitea ahalbidetzen digu, eta datorren ikasturteko Hobekuntza Plana osatzen dute. 2019/20ean, Zentroan martxan jarri diren master ofizial berriein barne, posible izan da definitutako interes taldeen % 100ari egitea galdeketa, zeinetatik erantzun tasa % 40 inguru izan baita.

Amaitzeko, adierazi nahiko genuke sistemako prozedurari eta prozesuei buruzko berrikuspena espero bezala egin dugula. Izan ere, Zentroko master atxikiak kudeatzeko Fakultateko prozesu-sistema egokitu baita. Egokitzapen horri esker, sistemako prozesu eta prozedura guztiak sakonki berrikusi dira, eta horren bidez, beren beharrei guztiz egokitzen den sistema eguneratua daukate orain

EMAITZA NAGUSIAK


GRADU TITULAZIOEN ADIERAZLEAK

Sartzeko gutxieneko nota







Graduen okupazioa




Egokitzapen-tasa




Errendimendu-tasa




Ikasketen uzte-tasa






Ikasketak amaitu dituztenen kopurua



Enplegu-tasa



MASTER TITULAZIOEN ADIERAZLEAK



SISTEMAKO BESTE ADIERAZLEAK

ADIERAZLEA	19/20	18/19	17/18	16/17	15/16
2.6p Mugikortasun programetan parte hartu duten egresatuen ratioa	23.39	19.66	24.32	18.40	12.75
2.7a Curriculumeko edo curriculumetik kanpoko praktikak egiten ari diren ikasleen kopurua	244	271	261	205	193
4.1d IIPen ISI argitarapenen ratioa	1.14	1.15	1	0.93	0.86
4.1i Defendatutako Tesien kopurua	70	80	102	99	99
Ikastegiari lanaldi osoz atxikitako irakasle-ikertzaile doktoreen %a	88.02	85.95	87.2	88.33	88.47
Ikastegiari lanaldi osoz atxikitako irakasle-ikertzaile iraunkorren %a	74.57	72.38	76.33	77.86	78.35
6.1b Irakaskuntza jardueri eskainitako aurrekontu arrutaren %a	77.03	62.83	81.98	77.16	107.58
6.1k Ikerketa taldeei laguntzeko eskainitako zentroko urteko aurrekontuaren %a	10.2	26.59	8.49		
7.2d Zentroan garatu eta zabaldu diren ingurumen hobekuntzarako ekintzen kopurua	5	6	6	6	7
8.1c Euskaraz egindako GrALen %a	43.88	37.59	34.88	37.59	34.64
8.2h Ingelesez irakasten diren irakasgaien kopurua	35	34	30		
8.2i EFC irakasgaien kopurua	76	61	39		
9.2c Kanpoko erakunde eta instituziokin hitzarmen eta kolaborazio kopurua	13	40	11	5	8
DOCENTIAZ bidez ebaluatutako IIPen %a	48.81	43.04	35.99	30.65	25.37

ERINTZAK

EGINDAKO EKINTZA BATZUK

- 1.- Kudeaketa sistemaren aldaketa zentroari esleitutako masterren kudeaketa sartzeko.
- 2.- Kimikako Graduan ibilbide duala ezartzearen bideragarritasunaren azterketa.
- 3.- Graduetako eta Masterreko irakaskuntzetan ondorioztatutako COVID-19 pandemiaren hainbat egokitzapen (ebaluazioa, TFG entregatzeko egutegia, GALren araudiaren aldaketa iragankorra)
- 4.- Zentroko Batzarraren Aktak digitalizatzea.
- 5.- Ikasleen kudeaketarako formulario elektronikoak egitea.
- 6.- Masterretako interes taldeen gogobetetzea ezagutzeko inkesta ereduak diseinatzea.
- 7.- Fakultateko azpiegiturak mantentzea eta hobetzea.
- 8.- Zentroko web-orriko edukiak berrikustea.
- 9.- "1968-2018 Zientzia eta Teknologia Fakultateak 50 urte / 50 años de la Facultad de Ciencia y Tecnología 1968-2018" liburuaren aurkezpena
- 10.- Graduoko eta Masterreko ikasketetan aldaketak (irakaskuntzako bektorea aldatzea, irakasteko hizkuntza berriak, lauhilekoa aldatzea).
- 11.- GIBek eta Masterreko Batzorde Akademikoek gidatutako titulazioa hobetzeko ekintzak.

2020/21AN EGITEKO PROPOSATUTAKO EKINTZA BATZUK

- 1.- Barne-hausnarketa estrategikoa.
- 2.- Zentroko prozesu-sistemaren berrikuspen osoa.
- 3.- COVID-19ko gradu-ikasketetarako presentzialtasun-mapa definitzea.
- 4.- Graduondoko eskaintza dibulгатzea.



- 5.- GAUR programaren bidezko Master ikasketetako kanpoko praktiken kudeaketa
- 6.- ADDI eta GAUR plataformen bidezko MALen kudeaketa.
- 7.- Zentroko lokaletan COVID-19ren aurkako osasun-gomendioetatik eratorritako osasun-baldintzak betetzeko neurriak hartzea.
- 8.- Ikasgeletan bideokonferentzia-sistemak instalatzea.
- 9.- Mugikortasuneko ikasleen (Outgoing) matrikulazio-prozesuaren hobetzea.
- 10.- Mugikortasun-programak kudeatzeko Zentroko Araudi propioa egitea.
- 11.- "Amets bikoitza. Euskara zientifikotzea eta zientzia euskaratzea. Zientzia eta Teknologia Fakultatearen historia euskalduna" eta "50 urte Zientzia eta Teknologia zabaltzen / 50 años divulgando Ciencia y Tecnología" liburuen aurkezpena.
- 12.- Fakultateko hirueledun webgune berria.